# Eskuen sustraiak

Oier Guillan

poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2009 Oier Guillan
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2009ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

# PAPEREZKO BARATZEA

> Beraiek kode zibila bezain harro
> zabalduko dut nik *On Kixote Mantxako*
> eta luzaz egonen naiz orrialde berean,
> hitzen baten zain.
>
> *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*
> KOLDO IZAGIRRE

Hildakoen ispiluek ahaztu dutena naiz.

Erein dut poza eta jaio dira ileak.
Bizi naiz orpoetan.

*tud ihan istuah adarigeb erin*
*alon tikad ze ate*

Zakarra da nire ahotsa,
bizi naiz ezpainetan.
    Zaharra da nire ahotsa,
    oroimenaren adinekoa.
    Suharra da nire ahotsa,
    itsaso hautsien tamainakoa.

Erein ditut malkoak eta jaio dira sustraiak.
Bizi naiz hortzetan.
Nire irribarreak amorruaren antza dauka.
Txantxar isilaren soldatarekin sendatzen ditut
oholtza hautsien dardarak.

*kilios naeztlag arekua okeztirrah*
*aned ad neztlag*

Erein ditut ferekak eta jaio dira ukabilak.
Bizi naiz biriketan.
Erantzi dut biluztasuna,
azaletik zenbatu ditut galera alaien izerdiak.
Orbelen moduan egiten dute krask aitortzek
nire zainetan.

Erein ditut uneak eta jaio dira telefonoak.
Zenbakiak eta ahotsak,
nortasun erdibituak:
izan ala besteek diotena izan.
Belarra da munduaren adatsa,
hanka depilatuen neurriko autobideak,
uka bideak, oka bideak.

*aortaet neraztoireh aortaet neranusatnidrog*
*aortaet akiteop nerakitilop*
*aortaet*
*aortaet*

Belarri itsuetan hitz jendetsuak.
Bizi naiz eskuetan.
Umorearen gorotza arnasten dut
ironiaren erbestean,
marra bete lerro,
lerro bete hortz,
atzazal hotz,
asunen isun.

Erein ditut uztaiak eta jaio dira zinikoak.
Pailazoaren tolesak,
funtzionarioaren oporrak,
boto paper bizardunak,
estatistika hankamotzak,
haur ikusezinak,
munduko jakintsurik tontoenak,
txokolatezko zauriak,
jostailuzko tortura gelak.

Etorkin naiz segundoak bezain eta
aditzak manifestuetan nola
diot:

Erein ditut hitzak eta jaio dira oihartzunak.
Bizi naiz alu eta zakiletan.
Ahoen basamortuan isiltzeko mintzo naiz.
Ezin dut neure burua zeharkatu
egarria sentitu gabe.

Erein ditut balak eta jaio dira demokratak.
Erein ditut leloak eta jaio dira koltxoiak.
Erein ditut zalantzak eta jaio dira txostenak.
Erein ditut epaiak eta jaio dira epaileak.

*aztluari nugazed nige*
*ebag nase ironi*

Bizi naiz besoetan.
Gorputzak zuhaitzak farolak eta
semaforoak hazten zaizkit galtzarbean.

Bizi naiz begietan.

Adinaren geltokietan
suizidatu zait normaltasuna.
Ekintza baten moduan ulertu dut
ortzadar laukien laztana.

Bizi naiz oihuetan.

*anusatnidrebze arog!*
*auxes ate katekork!*

Hildakoen ispiluek ahaztu dutena naiz.

Bizi naiz orroetan.

*kalakidarre arog!*
*kaetnarelotni areheb!*

Erein ditut isiluneak eta jaio dira gehiengoak.
Erein ditut argazkiak eta jaio dira izenak.
Erein ditut itsusiak eta jaio dira gogoak.
Erein ditut ukabilak eta jaio dira ferekak.
Erein ditut lubakiak eta jaio dira gorputzak.

# ILDOAK

# MANIKIA

Isilduko zara.
*Itxaron pixka bat*
esango diozu zalantzari.
Aditzen abangoardia sortzen
jardungo duzu egunen bazterrean.
Bizitza ordutegietatik at
hasten dela pentsatuko duzu
inori esan gabe.
Idealak eta utopiak
saihestuko dituzu,
borrokatzen jarraitzeko
zentzuzko berba errealen bila.
Babestuko zara.
Une hobeen zain
aldenduko zara iritzietatik,
maitasuna zabalduko duzu ahapeka
maitaldi lausoetan.
Ametsei izena aldatuko diezu,
onarpenaren zentsura pasa dezaten.
Zeure buruarekin
haserretuko zara ondoren,

badakizulako funtsean
ez dagoela hutsuneentzat ihesbiderik.
Kafe bat hartuko duzu,
zigarro bat piztu eta
esan beharrekoak tentuz
aukeratuko dituzu.
Bizirik zaudelako
behar duzu ez zarena,
bizirik zaudelako
zenbatuko dituzu eguneko titularrak
etsipena baino zabalagoa den
fereka baten ertzean.

# GORPUTZ HONETAN

gorputz honetan daude
noizbait izandako
gorputz guztiak
eta izango direnak
eta baita izango ez direnak ere

guztiak ilunean ortozik
esanetan kamuts
eskuetan trakets
gomuta baten karelean
gorpuzturik

poema honetan daude
noizbait esandako
hitz guztiak
eta esango direnak
eta baita esango ez direnak ere

# NI ISILTZEKO

Esaiozu
gurutzegrama bat naizela
zulo txuriekin osatzen dela
nire azal gurutziltzatua

Esaiozu
paperezko letra bat
eztarrian trabeska dudala
esnatzen naizela eguerdiro

Esaiozu
ez zuela soluzioekin
poema bat egin behar
ni isiltzeko

# BEGIAK POLTSIKOETAN

Oinutsik dator egunen sasoia
hotzak bizkarrezurra bihurritu dit esaldi baten
mugaraino
zigarroetan erraustu ditut minutuak
amorruak erkatuz

norabiderik gabe abiatu naiz
eta azkenean
atertu zaizkit orkatilak

behingoagatik
nire irrikaz den bankua
topatu dut

denbora saihestuz heldu diot
galderen uhara kutsatuari
kalean liburutik begirada altxatzen dudan unearen
indarrarekin ikusi ditut
ahanzturaren historian mozkorrek aske utzitako
mamuak
grina mutuen errekan ito beharrean

ezin ditut begiak
poltsikoetan gorde
beranduegi da ezaxolarako

bart gauean
ortzimuga urratzeko erabilitako atzazalak moztu
eta uso zuriei eman dizkiet jateko

# BELARRAREN HISTORIA

Ez dakit non hasi
eta non amaitzen diren
ezjakintasunaren mapak.

Urteen lokatzaz zipriztindurik dago
nire itzala,
memoria baino zabalagoa da
iragana.

Arrotzak zaizkit belarraren berbak,
ezezaguna haren mundu ikuskera,
hizkuntza berean mintzo naizen arren.

Historiak letra larriz irentsi duen
historiaren segida da nirea:
kaleetako zuhaitz bazterretan
ernatu den etorkina naiz.

# GIZONA EZ DA TXORIA

Sustraiak ditut zainen ordez

nire begietan kimuak bilatzen dituenak
        zuhaitz bat aurkituko du
nire begietan leihoak bilatzen dituenak
        zuhaitzaren adarrek sostengatzen duten
        zerua aurkituko du

sustraiak ditut zainen ordez

gizakien malkoak edaten dituzten
        txorien zain eman dut bizitza
oroitzapenak nahieran astintzen dituzten
        hegaldi isilak
        anonimoak

sustraiak ditut zainen ordez

zuhaitzen sustraiek
        hirietako espaloiak
        zartatzen jarraitzen dute

# LORONTZIAK ETA HAIZEA

Lorontzietan landatzen ditut sabelak
gosez ditudalako gabeziak.
Balkoian kolore irekien uholdea
aldarrikatzen du geroak,
egun hautsi batek nola.

Buru baten tamainako ontzietan jaioko zaizkit
kondoi erabiliak,
arma herdoilduak,
mendeku ekologikoak,
body milk poteak,
begi zuloak nabarmentzeko pintura beltzak,
askatasuna akabatu duten definizioak,
aurreiritzi elbarriak,
inora ez doazen bideak,
aurpegi batera datozenak.

*like a bird on the wire*
*like a drunk in a midnight choir*
*I have tried in my way to be free…*
Loreei musika jartzen zaie haz daitezen,

espaloietako geometriara jausten da euria,
bizilagunei hots egiten diet: *Birika!!!*
eta ez dute ezer ulertzen,
oihu egitean datzalako gakoa.

Haziko zaizkit
borrokarako estrategiak,
        udako kanta mutuak,
                ileorde urdinak,
izerdi ezkutuak,
        ortzimuga errariak,
gorbatadun burusoilen gainean
        pixa egiteko gogoa.

Bizitza amu bat da
        *Birika!!!*
eta ez dago haize egunetan
lorontzien eztanda geldi dezakeen aterkirik.

# AKUILUAK

batzuetan belaunak uzkurtzen zaizkit
euritan biltzen haginak
batzuetan zalantzak leporatzen dizkit
isiltasunak

akuiluak asmatu sortu pentsatu
irudikatu nahi nituzke orduan

akuiluak dira
leporik aurkitzen ez duten masailak
ideia hautsiak
umore tristeak
akuiluak dira
aldarrikapen ezinduak
manifestu otzanak
izen abizen etzanak

akuiluak lotsaren bidean
abandonatutako argazkiak
mozkortiaren gezurrak
politikoaren egiak

akuiluak espaloiei neurria hartzeko
akuiluak ziurtasunak zartatzeko
akuiluak maitasunik sendoenak zauritu eta
maitale lehertuak zelatatzeko

akuiluekin jakin nezake
non biltzen diren isilpeko gatazkak
non jaio diren
garaipenak ordezkatu nahi dituzten
lore akastunak

akuiluak behar ditut minutuek oka egin ez dezaten
akuiluak behar ditut sinesmenak gaitzetsi eta
betileen ertzean konfiantza gailendu dadin

akuiluak zaborrarekin musikarik ederrena egiteko
irribarre metafisiko batekin
ile galduak behinola existitu zirela oroitzeko

akuiluak xumeki eta militanteki
zoriontsu izaten ausartzeko

# BETIKO TABERNAN

erreala naiz astearteetan
familia hitzarekin kezkatu ordez
kultura eta politikaren mixeriak
lagunekin komentatu ordez
diruaren itzala eskuotara luzatu
sexu ahalik gabeko zaratak antzeztu
eta abuztukoak ez diren behakoen
hustasuna laztandu ordez
betiko tabernan eseri eta
poemak idazten saiatzen naizenean

# LERRO HAUEK

Ez dut gogoko maitasuna hitza
ez askatasuna
ez ametsa.

Kontraesanean bizi naiz,
esanahien kontrako
iraultza dutelako xede
lerro hauek.

Hitzon hezurdura
berreskuratu nahi nuke
egunerokotasunetik, xume,
zintzoki esateko:

maite ditudan pertsonak
tristeziatik askatzea
dut amets.

# HAZIA

# FEREKAK

ezin dut
eskuekin pentsatu
burua lepo
bihotza dut hankartean
belarriek ikusten dutenaz
mintzo zait ukondoa

ez dakit
ze gorputz ataletan
gorde ditudan ferekak

# HAUR HAUTSIAK

> badakit, hala ere, nola maitatzen den
> txikitan irakatsi zidaten / ikasi nuen
> (eta ikasten jarraitzen dut
> noizean behin ahazten dudan arren)
>
> Jon Gerediaga

haur hautsi bat utzi dut gaur zure haur hautsiari so
dortokak paratuz mikrofonoen aurrean
zalantzei ozen esateko:
begietan pausatutako denbora da nire utopia

atzo zaren biharko hura maitatu nahi nuke
bere orrazkera ezberdinekin
bere ile txuri eta malko sozialistekin
hustasunari beldurrik ez dion arnasak bezala

bide bat egin dugu jada elkarrekin
eta mingarria da bidea
eta iraultza bezain pozgarria da bidea
geurea delako

nire amorruak zahartu duen hura zara
nire alaitasunak zedarritzen duen
algara eroak zaintzen zaitu
zure oskola zartatuko dudan beldurrez

gure aurrekoek ezin zuten imajinatu belarraren ertzetik
paperezko ezintasunaren maileguetatik
gaur garen batasun hautsia
gaur garen ur-jauzi isildua

gure etxeko ispiluak desioen gudarostea
gorde du kristalezko memorian
dortokaren burua bezain hauskor

irabazi dugun galeraren biografia da
aho baten dardararekin
batzen gaituen aldarrikapena

# ISILDU NAHI DUDAN GUZTIA

beldurra diot
lehen aldiz
biluzteari

ideien adoretik
haratago ahoari
hitza emateari

arropekin batera
esanahiak
eranzteari

ahots bat
inprima nezake
azalean

fereka arrotz bakoitzak
isildu nahi dudan guztia
entzun dezan

# ZIGARRO BAT

Zigarro batekin hasi zen dena
zigarro batean sartzen zen
itxaropena
badakizu...
zalantza
bakardadea
hodei goxoa...
zigarro batekin hasi zen erlojua
amaitzen deneko
sentipena
sen hori
zigarro batekin hasi zen...
badakizu...
sua eman eta
astearteak ederrak direla
hasia nintzen pentsatzen
ez doazelako inora
txinpartek gutxi
irauten dute baina
zera...
zigarro harekin hasi zen dena

badakizu...
norbait gerturatu eta
zu itzalita zaude
zigarroak ez du
deus esaten baina
badakizu...
zigarro batekin hasi zen
inora ez doan
keinu batekin eta...
urrun dago beti kea
desioak estaltzen ditu
zera esanez bezala...
baina zigarro bakarra aski ez
eta hormekin
hitz egiten duzu
ezer esan gabe
eta tira...
asteazkenero
uzten diot erretzeari
sua itzali orduko

# MAITASUN POEMA ARRARO BAT

Ezpainetan hasten den biloa.
                        Zurea eta ni.
                        Hor nonbait.

Eromenari heltzen badiogu
ez da ero gaudelako,
premia dugulako baizik.

Urdina arnastu nahi dugu
hortzekin.

Gogorragoa da asmatu dugun
patua. Zer eta.

Minutu bat ikusi dugu
                  lur
                  hartzen
eta ez diogu zirrikiturik utzi.

Kandela batek neurtzen du
gure gorputzen denbora.

# BILUZTASUNA

Zure biluztasuna
erreala da
zure biluztasunera
esnatzen naiz
nirea erantzirik
zure biluztasunarekin
estaltzen dut nirea

# SORO BAT GIBELEAN

biluztu zaitez lau-
hogei-zortzi

sabela puztu zaizu eta ez zaude astelehena-
osteguna-asteazkena

badira zenbatu ezin diren gauzak eta tantak-
oihuak-ileak

biluztu zaitez soro baten gibelean
erein zaitez autolaguntza liburu baten pare
hazteko-galtzeko-aberasteko

usain ezazu zure izerdiaren uhara eta hamabost-
hogei-bat-hamar-hogeita hamaika

biluztu zaitez eta ikus ezazu nola puztu zaizun
sabela nola
ez zauden haurdun ez zauden abendua-otsaila-
ekaina
ez zauden gose eta abuztuan agian bai eta

ez zauden hilik zortzi-lau bizirik baizik

biluztu zaitez ilearen zama erloju batean sartzen den
urtaroetan lau-sei-inoiz-beti erein zaitez
usain berritsu bat nola udaberria-negua

biluztu zaitez niri so arren bost-sei
erantzi iezazkidazu beldurrak-lepoak eta
inurriak ahotik gaur-bihar-etzi

biluztu zaitez eta arnastuko zaitut inoiz-gaur-bost-lau-
abendua-oihuak-ileak-abuztua

sabela puztu zaizu eta larrean ikusten da iragana sei-
diot-gaur-beti hustu malkoak astelehena-lau-bi-gaur

biluztu zaitez eta maita nazazu ispiluek nola
ahoek eguraldia nola bost-hogei-bihar

erein itzazu kezkak zalantzak-berriak-oihu zaharrak
usain ezazu haien kea bost-gaur-bihar

biluztu zaitez hamaika
biluztu zaitez badirelako zenbatu ezin diren gauzak
eta orbelak-harriak-hordiak

biluztu zaitez uztaila
biluztu zaitez badirelako zenbatu daitezkeen gauzak
eta lagunak-grebak-goseak

# UNE AKRILIKOA

Hutsik dagoen
zuhaitz baten isla
memoriaren leihoan

Ke seinaleak egin ditut
ikus nazazun
eta birikak kutsatu zaizkit

Zure beroaren babesean nago
denborak iraun artean
hotzak ahantz nazan

Ospitaleko gela bat dirudi denborak
Landare haragijale bat daukat
gaur ezpainetan

Ortzadarra haginekin zauritu eta
euria beranduago
has litekeela sinetsi dut

iraultzarik gabeko
igande arratsetan

# ZATOZ

Nekatuta zaudenean
gorroto duzu mundua
pisutsua zaizu
eta mundu horren parte suertatzen naiz
ni ere ezinbestean

Nekatuta zaudenean
masailak gorritzen zaizkizu
eta ez dira iraultza gosez
Nekatuta zaudenean
ez dago zure begiak esaldi baten parean
itxiko ez dituen istoriorik

Nekatuta zaudenean
zure besoetan desagertzen naiz
bekainek ez dute atsedenik hartzen
nagituta esnatzen zara nire besoetan

Asko dago egiteko
ideien bizitza gaizki doa
eta zu lanean nekatu egiten zara

Nekatuta zaudenean
egunak motzagoak dira
zure hatzak koloreen bila luzatzen direlako
nirea ez den zeruaren azalean

Etxera iritsi eta nekatuta zaudelako
esan nahi nizuke zerbait goxoa belarrira
zurekin nagoela eta
eskua bizkarrean pausatuz
zure iritziekin bat egiten dudala aitortu
sutsu hitzetan gorputzean

Nekatuta zaudenean
oihu egin nahiko nizuke kontuz
nekatuko zara nekatuta egoteaz

Edo nekatuko naiz ni
nork daki
nekearen nekez
begiak ixten dituzunean
ikusezin bilakatzen bainauzu

Baina gaur ez da bihar

Zatoz
Negar egingo dugu elkarrekin
Atseden emango diogu nekeari

# APURTUKO DA

Zure sekretuen
jabe zarelako
diot
astelehenetik
igandera
gauero
maite zaitudala
hitz horiek erabili gabe

zure sekretuen
jabe izatea
lortzen dudan
egunean
zer edo zer
apurtuko da
gure artean

baina hori
gure sekretua
izango da

# NOREKIN?

norena ote
hondarraren muga etzanean
azaltzen den
azala

norentzat
hitz baten bazterrean
hazi den
hazia

non
oroimenean uzkurturik
laztu den
laztana

noizkoa ote da
oihartzunik gabeko
behakoaren sumendi
behekoa

# GOROTZA

# ALOKAIRUZKO BIZITZAK

Negua heldu zen. Ez nintzen jabetu.
Aterpea erosi nuen. Jabetu gabe.
Neure burua saltzen dudanean bezala.
Jabetzeko gaitasunik izan gabe.

# GOROTZA

burumakur
antzarak
gurpilak
orduak
zainetan idealismo ustelak
iraungitze datarik gabeko
isurketa
hautsiak

non daude orain galderak
non erantzunak ez sinesteko
trabak

burmuina zabaldu zait
iritzi artikulu bat bezala
ongi etorria emango diot
gorotzari
iraganaren usainak
ezerezetik
hondakinetatik
une berriak sor ditzan

orpoak sabel
hortzak amu
aburumakur bihotza!

ez dakit zer datorren
subentzio publikorik gabeko
utopien ostean

garai berriak baino
iragan berriak
agian

# MAPA BAT

hitzek ez dute balio zure
samina neurtzeko eta
hala ere
odolaren bazterrean
                idatziko
                duzu

torturaren itxaron gelan
zaudela gogoa akiturik
bizitzatik egotzia izerdi
putzu batean ito beharrean
                idatziko
                duzu
hortzei falta zaien zentzua
topatu nahian

bidea egingo duzu oroitzapenak
belaunetatik ezabatuz
paperean jasotako mundua
kutxa txikietan ehortziz
ihesaldian

historiak oroitzen ez dituen
istorioak bilduko dituzu
gizatasunaren hatsari nolabait
bada ere
eutsi nahian

bizkar baten bero ahantzia
denborarentzat
izozteko asmoz

mapa bat osatuko duzu
gero
noizbait
norbaitek
kutxa txikiak jaso eta
itzulerako bidea egiteko
aukera izan dezan

zuk ordurako zure
liburuen moduan egina
izango duzu
lurperako bidaia

idazlea zinen
gerra baino lehen
gosea baino lehen
isiltasuna baino lehen

eta ez du inork jakingo
eta ez du inork
mapa erabiltzerik izango

# BOSNIAKO HAUR JOLASA

bala hautsi batean sartzen da
nire bizitza

zenbaki batean galdu da
nire izena

begiak itxi ditut
heriotza ez ikusteko

begiak itxi ditut
heriotzak ikusi banindu bezala

begiak itxi ditut
heriotzak ikus ez nazan

# DESAGERTUEN AMAK

heriotza ikusi duten zuen begien aurrean paratzen dut
nire gaztetasun zauritua

besarkada kutsatu batekin aitortuko dizuet kea
utopia eta mundua bezalako gezurrekin batera

irribarre zintzoak ehunduko ditut hala ere
ehunka irribarre

zakila ebakirik sabela irekirik galdu duzuen semearen edo
alabaren adin bera izan nezake neguko gau honetan

beldurtzeko gaitasun bera
kontakizun maitekorren sutondoan

eta ez naiz baina banaiz
zuen ahotsa entzuteko nor

ametsen aitzakian sor litekeen krudeltasuna zor

zama dut asun labana galeren oihartzun

nire bihotzari erreparatu diot eta bai taupada bat
izoztu ere
zuen seme-alaben oroimenez hilik nago istant batez

eta ez naiz eta ez dut izan nahi ere
mendeen ile jasoa zuritzen duen segundoaren
neurria

banoa zuen oroimena neurearekin kolpatuz
izenak mutu dituzten hobietako zenbakiak bortizki
hautatuz

banoa nire eguneroko borroka ezin ezdeusagoetara
bizirik egoteko konpromiso sendoarekin

# EZTANDA

Pertsona baten alboan eztanda egin du munduak
eskuak zabaldu ditut pusketetan
eta niretzat gorde dut masailezurra

Egiakeriak belarriak usteltzen dizkidan garaiotan
adiskidetasunaz mintzatuko naiz
ideologia bat balitz bezala
Erraiak landatuko ditut fideltasunaren baratzean

Ideiak haziko dira
aurretik egindako bideari kale egin gabe
ideien edukia goratuz
ideien jabeei kasu egitea baztertuz

Pertsona baten alboan eztanda egin du
gezurrezko patuaren nekeak
Diodana naizelako isilduko naiz oihuetan

# AURPEGIAK

Aurpegi ebatzi batek bonbardatu du iragana.
    Zarratu behar dira leihoak,
    prezintatu hormak,
    usteltzeraino hustu hiztegiak;
    eztandarazi inprimategiak
    behinolako zubien moduan,
    garapenaren trenak zapal ditzan oin hotsak.

Aurpegiak estali ditu zarataz betetako isiltasunak.
    Eskuburdina hotzen tintarekin
    albiste bat marraztu dute
    mintzo denaren eskuan.

Aurpegi zedarritu batek zartatu du oraina.
    Ehortzi behar dira gutunak,
    irakatsi itsutasuna,
    lurperatu besarkadak;
    ez daitezela izan
    maitasunera lotzen zaituzten kateak.

Ezabatu aurpegiak seme-alaben marrazkietatik.

Erauzi denak oroimenetik.
Ekarri argazkietara
kaskoen berdintasun demokratikoa.
Baztertu kokotsa, masaila, pertsona.
Erosi Justiziaren malkoak
saminaren odolarekin.

Eta bakea ostentzean zenbatu berriz aurpegiak.
Aurpegiek ez diote, baina badira.

# GAZA

gerra bat gehiago
izenik gabeko
1.440 gorputz
gutxiago

titular bat gehiago
gorputzik gabeko
1.440 izen
gutxiago

eztarrian

# HABIAK EGIN DITUZTE HOBIETAN

> "Historia ahazteko egina dago", erantzun ohi diet.
> "Edertasunak salbatzen ditu istorio txikiak".
>
> *Zulo bat uretan*
> IÑIGO ARANBARRI

habiak egin dituzte hobietan
lur azpian jaio dira loreak
hezurrak eta gezurrak
ideia batek zulatutako
bala herdoilduak

memoriaren habiak
edo ahanzturaren hobiak
ezin jakin zeintzuk diren hobeak
ezjakinak dira galderak

simaurra legez
lekukotzek etorkizun den
edertasunaren hazia

ereiten laguntzen dute
hobe beharrez

habiak egin dituzte hobietan
malko hautsien gudaroste batek
zabaltzen ditu
lur azaleko zain irekiak
su jauzien hego pintatuak
ezpainez mintzo diren ezpainak

habiak egin dituzte hobietan
abiatu daitezen arratsean
lorik gabeko loreak

# BRIGADISTA

telefonoak urrunera jaurti ditu bonbak
lekuz kanpo dagoen anabasak
hatz urratuekin zenbatu ditu
betazalak galdu dituzten gorpuak

bere ahotsa jaso dugunean
negarretan hasi zaigu odola
poesia ari du hemen baina ezin diogu esan
bizitza oroitzapen baten bazterrean hazten da

azken egunera arte iraun eta gero
tankeen ertzetik egin du ihes
zertarako jakin gabe
basamortuko hotza eztarritik kendu ezinik

bonbardaketek gezurra astindu duten bitartean
gauero hunkiturik bildu naiz
hautsak ozpindu dit arnasa
burmuinaren uhinetan

isilpean gorde dut berarekin han egoteko gogoa
ezusteko inbidia arraroa:
beldurra diot ausardiari baina ments dut
koherentziaren pozoia

itzuliko da inoiz
ekialdeko hiri erraustuetan itzala hilzorian utzirik
mendebaldeko autopistetan
auto-gezurren zama sentitzeko kemenez

teatroa ari duelako
egiaren ostarteetan

# EROEN ERROAK

ez dakit zirrikituak diren ala ildoak
arrakalak ala orbainak

mundua korapilatu zait eztarrian
uholdeka bildu ditut orainean zimurrak

zabaldu da biluztasuna
musikari gorren ametsetan

sustrairik gabe jaio naizelako
hesitu ditut erroak
injustiziaren ahots urratuan

harridura ikurrak diren lerro
zuzenak jaurti orduko lurrera
mundua korapilatu zait eztarrian

ozenki arnastu ditut bekainak
biolin hautsiak eta erle ezjakinak

munduko eskaleak etzan zaizkit
egunen kanposantuan *lur hau nirea da*
oihukatuz ardo merkearen truke

barre egin dut
mundua korapilatu zait eztarrian

etorkina ninteke injustiziaren mapan
une bat probestuz muga zedarritu bakoitzeko

arrotza ninteke belarri erraldoi baten aurrean
hiztegi eguneratu bat prentsa ohar bakoitzeko

belarra zenbatuz erantzi ditut malkoak
eztarria korapilatu dut munduan

# AFRIKA ISPILUEGI

*Cassamanceko adiskideei*

batzuetan ezin dut jasan
igande arratsaldeak
argazki oin
ezeroso batekin
asaldatzen dituzten
begirada ispiluegiak
aitortzea

nori eta
kafesneari
zigarroari
izan banaizen
liburu auto etxe
asperdura
une
guztiei

batzuetan ezin dut jasan
abuztu edo

igande bezalako
hitzen jabe izatea
erabiltzeko edo
ez erabiltzeko jabe

batzuetan ezin dut jasan
ez dakidan guztia
ezagutzen ez ditudan izenak
saminak eta oihuak
ez ikusteko dudan
eskubidea

begiak zabalduta ere
begiak itxita
bizitzeko dudan
askatasuna

# THE OTHERS

Zuen legeekin
zulatu dituzue
gure oroitzapen ederrenak

zuen abiadura handiko negozioekin
akabatu duzue
adinaren geltokietako itxaropena

zuen sistemarekin
ostu dizkiguzue
komunikatzeko bideak

zuen justiziarekin
bahitu dituzue
bozkarioa bozkatzeko ateak

zuek duzue
zuek zarete
zuek

eta guk aukeratu omen zaituztegu
babes ofizialeko
bizitza baten truke

# CARA AL SOL

Eguzkia hartuko dugu elkarrekin
Espainiako hegoaldean.

Gustukoa dugu biok
turismoaren zakil eroriari eta
hipokrisia burgesaren alu bustiari
erreparatzea,
elkarri eskutik helduta
kate arrotzen
itzalean.

Lisboaren antzeko hiri
zaharkitu eta orbanduetan
maite dugun
Pessoa baten izena
jarriko diogu kale bakoitzari.
Gu bai inperialistak!

Gure gorputzen
erkidego sutsua
aldarrikatuko dugu ondoren

ortozik aurkitzen ahal dugun
ohe merkeenean,
non eta
Pension España
deritzon horretan.

Gure xedeak
burujabeak dira egunotan,
etorkin eta sekretupean bada ere.

Eguzkia hartuko dugu elkarrekin
Espainiako hegoaldean
eta
eguzkia hartu ostean
gauari itzuliko diogu.

# EZ DA METAFORA BAT

neure burua suntsitzeko gaitasuna dudan bitartean
salbu nago eta
alokairua ez da metafora bat
une batean harrapaturik bizi naizelako
naiz maitatzeko gai eta
autoaren asegurua ez da metafora bat
aurpegi bat marrazten dut goizero ispiluan eta
zortzi orduko lan-eguna ez da metafora bat
gorputz atalak laztantzen ditut urrats bakoitzean eta
babes ofizialeko bizitza ez da metafora bat
denbora pasa ahala ideiak ereiteko
erabiltzen dut gorotza eta
gorputzen arteko isiltasuna ez da metafora bat
itxaropena ideologia ahul bat da eta
norbere familia babestea ez da metafora bat
basatiki eraikitzen dituzte errepideak nire zainetan
eta
soldata finkoa ez da metafora bat

besarkada bakoitza zintzotasunaren aldeko
    ekintza bat da eta
    ezkontza ez da metafora bat
orri zurian zirriborratzen ditut mundu hobeak eta
    poesia ez da metafora bat

# ESKUAK

# ERREKA MEHARRA

Misery´s the River of the World
Everybody Row! Everybody Row!
TOM WAITS

liburu bat gorputz atalez erdituko da itsasoan
koloreen anabasa biluziak zahartzaroa aitortuko dit
min ematen duen
edertasunarekin

ene zauriek ezin dute hatz baten musika jasan
begi bat ezabatua duen aurpegia ikusi dut
oihu bat zeharkatzen
ahotsa desio duen doinua

kapela iluna duen agureak
airea bihurritzen du eskuekin
denbora leundu nahiko balu bezala
niri so

keinu lizun bat egin diot
koadro batean sartu eta

oinez hasi naiz koloreetan barrena
desioa itsutu arte

bularrak bete dizkio isiltasunak
arnasa aldarrikatzen duen neska gazteari
etzan naiz haren alboan
magalean bilduta duen harrizko jarioa
itzal baten ilearekin eten nahian

irten naiz koadrotik
agure zatarrak bizitzaren aukerak nabarmentzen
jarraitzen du botila hautsi batekin

hatzak zabaldu ditut mihisean
haztamuka

# GAU HAU

Oihu egitea ahaztu
ez dutenentzat
da gaua

eztarriak apaindutako
soinu itogarri baten
jabe direnentzat

arriskatze xumeei
bostekoa eman eta
hortzik gabeko
aurpegi betean
bizi direnentzat

# ESKULTOREA

egurrak kateaturik
izerdiak eta ezpalak

urkaturik altxatzen da goizero zut
harrizko lotsa egunkariaz estaltzen

eskumuturrak lohi
zuri-beltzezko bendajeak
behakoan hauskor

ebakiek mintzo dute bidea
hatzak zenbatuz zizelkatzen du
arduraren lehia oro

hariak oztopaturik
zalantzak eta denborak

gorputzak asmatzen ditu
erreka gorantz
isurietan

aurpegia mututzen duen ispilu
aurpegia eraldatzen duen aitortza lehor

eskuek zabaltzen duten forma oro doa
hitz itsu baten ertzera

# GONBIDATUA

Uzkur bildu zara
sorbaldetan etsipena
idealizatuz.
Zure buruaren irudia
sortu duzu
gure sudurren aurrean.
Hotza lo dago
eta ez du
zure beroaren berri.
Utopiaren oihartzuna
eguneratu behar dela
jakin dut tupustean
eta eguna hazi zait
orpoetan
saltorik eman gabe.

# ARGI BELTZ

lore hau ez duzu mapetan aurkituko

hamaika herri
belarrietan iltzaturik
doinuak aho
bukaerak oin hots

eten bat ahotsean

isiluneen amildegi otzana
balizko munduak
esku ahurrean

mundu beltzak
mundu berdeak

lore hau ez duzu mapetan aurkituko

lur azpiko edertasuna
azaleraturik
igurtzi ilun bat nola

lore hau

eskuen dardara gaurkotzeko
eztanda une
argi beltz
bihotz bero
hau

ez duzu mapetan aurkituko

# JOSE PEREA PINTOREAREKIN BART GAUEAN

Hortzak hartu zituen esku artean
eta zigarro mutu bat
eskaini zidan.

Ez zuen sormenari buruzko
bere jakituria itzela
doan banatuko.

Lehen garagardoa bai ordea,
nire ibileren berri
izatearen truke.

Ez zegoen ihesbiderik
eta ez nuen
ihes egin nahi.

Gure idazleen aipuak erabili gabe,
odolustu gabe ekin genion

sormenaz hitz egiteari,

edo, garagardo aparretan,
irribarre maltzur batez
uneak sortzeari.

# VHSan

Pailazoari sudurra lehertu zaio
(eta ez da gidoiaren parte bat).

Bideokamera martxan jarri zuten
Josek eta La Jauriako taldekideek:
*Zergatik uztartu poesia eta antzerkia?*
*Noiztik? Nola…? Baduzue tabakorik?*
Hamar urteren buruan
berriro grabatuko zutela esan ziguten,
esperimentu bat zela,
sormenaren arloan diharduen jendearekin
denbora pasa ahala gertatzen dena aztertzeko.

Gau hartan laukiak ziren
pailazoaren gurpilak.

*soberan eta plist*
*jira ta jira plof*
*rasta rasta jo*
*libililibili pu*
*ja*

Sevillako gune okupatuan
Josek poema bat irakurri zuen euskaraz,
deus ulertu gabe, karkaila malkotan,
gure ahoan sakondu nahirik.

Kristal hautsiek gomutak ebaki dizkiote
pailazoaren aurpegi zuriari.

*aiene ta plist*
*rasta rasta pu*
*libililibili plof*
*jira ta jira jo*
*ja*
Hamabi urte pasa dira eta
Jose ez da hitzordura azaldu,
bere lagunek ez dakite
haren ideiak non lurperatu.

Bien bitartean
utopiari lelo berriak
asmatu behar izan dizkiogu,
gaur egun zenbait hitz
ispilu zurbilegiak direlako.
Horregatik diogu

egunarekin batera karrikara jausten diren
ahots erdibituak garela,
mundua aldatu ezinean gaudenean
metro koadro bat behintzat irauli gura dugula
eta une bakoitza
manifestu labur bat izan daitekeela:

*gora bekatua!*

Autoak errepidearen kontra egin duenean
pailazoak ez du jakin zer egin txaloekin.

*iaia plist plof*
*rasta rasta ja*
*libililibili tras*
*jira ta jira pu*
*heinekeen ra!*
*jo*
Hamabi urte pasa dira eta
ez zara hitzordura azaldu,
orduko lagunok ez dakigu
zure ideiak non lurperatu.

Poema hau bidaliko dizut
ez zauden lekuetara,
VHSan.

# BELAR TXARRAK

egia da
zoriontsuak dira itsusiak
beren ipurdi iletsuekin
pikor eta fantasia lizunekin

egia da
gehiengoa dira arraroak
gizartea aldatzeari buruzko
eztabaida klandestinoak egiten dituzte
super-hiper-mega-makroen ilaretan
errenta aitorpeneko aulkietan
turismo bulegoen itzalean

egia da
iraultzaileak dira apatikoak
berdintasuna praktikatzen dute etxeko lanetan
sexu aukerak zertan diren
azaltzen diete seme-alabei
diru beltzarekin finantzatzen dituzte
kale bazterreko txorimalo eta artistak
diru zuriarekin finantzatzen dituzte
etorkinen oporrak eta ordainsariak

egia da
gezurtiak dira mozkorrak
uneak legalizatzen dituzte musu-truk
kontratu finkoak sinatzen dituzte zoroekin
tabernetan eta belarrietan oka egiteko

itsusiak zoriontsuak
arraroak gehiengoak
apatikoak iraultzaileak
mozkorrak gezurtiak

gora bixotzak!
esan du inork
gora taupada egiten dutenean!

ederra baita egiak sinestea
ez da egia?

# BAKARRIZKETA

Zirrara sortzen dit ikusezina den guztiak.

Kilker bat jarri nahi nuke
inoren ahotsean
esanahi bakoitzaren soinua dastatzeko.
Megafono bat sartu nahi nuke
politikari profesionalen eztarrian
handik oihu egiteko:
*ez zara nire jainkoa!*
*loreekin batera usteltzen diren*
*manifestuetan sinesten dut!*

Zirrara sortzen dit ikusezina den guztiak:
une honetan bertan lo dauden haurren
amesgaiztoek,
une honetan larrutan ari direnen begirada galduek,
une honetan torturatuak direnen bakardadeak,
une honetan erbestean daudenen itxaropenak,
une honetan banketxean ezkondu direnen pozak,
une honetan idazten ari direnen zalantzak,

une honetan mendiak suntsitzen dituztenen
lasaitasunak,
une honetan hiltzear denari denbora oparitzen
dionaren galerak,
une honetan umorea aldarrikatzen dutenen
urduritasunak,
une honetan kalean eskutik helduta doazenen
samurtasunak.

Hau ez da graffiti bat.
Ezagutzen ez dudan paisaia bat sartzen ari zait
ahotsean.
Ahotsa hustu ahal izateko idazten dut.
Baina hau ez da graffiti bat.

Zomorro bat naizela pentsatuko du norbaitek.
Eta horixe bera naiz:
bizarrean hazkura sortu gura duen zomorroa.
Depresioak baino ezin nau akabatu.
Psikologoak, psikiatrak, teledendako homeopatak
eta kultura funtzionarioak arduratu ohi dira
bitxoen zoriontasuna akabatzeaz.
*Baina zeinen zomorro bitxiak diren zomorroak ez*
*direnak!*

Hau ez da graffiti bat.
Hau graffiti baten ametsa da.

# ANHAUZEN

*Ipar Euskal Herrian*
*teatroa amesten dutenei*

Zabalduko dira xendrak oinetan
urrats zaurituen izerdia dastatuko du gauak

aurrera bisaiak!
        oihukatuko du jendeak
aurrera ezjakinak!
        irudi bete hots
aurrera zalantzak!
        beldurrak amaraun

txaloek errealitatea zaurituko dute:
biztanlerik gabeko gauean dena da posible
hizkuntza betea barne

dantza egin dezagun samina estutuz
dantza egin dezagun itxaropena gaurkotuz

jauzi baten arimak finkatuko du gaur

urtaroen salneurria
jauzi baten arimak estutuko du
galeraren bidea

txaloek errealitatea zaurituko dute:
bihotza ukabilean kabituko da
eta taupadak berriz
ahoan

# INOIZ EGIN DUDAN

Kantu anonimoak utzi ditut
autobuseko eserlekuetan.
Irudi biluziak egin ditut
dendetako atarietan.
Poema zikinak idatzi ditut
tabernetako komunetan.
Mezu merkeak zabaldu ditut
kutxazain automatikoetan.

Graffiti bat margotu dizut
begien azpian.
Merkea. Zikina. Biluzia. Anonimoa.
Ezertarako balio ez duena.
Inoiz egin dudan ederrena.

# DENBORA

# NOSTALGIA

ez du nostalgia
iraganean jazotakoak
sortzen

orainean bizi ez
dugunak
baizik

# ETA KITO

mundua zeharkatuko duzu
ostatuz ostatu
gelatik atera gabe
argazki bat egingo diozu leihotik
une horretako bizitza zatiari
bilduma osatuko duzu
hilzorian denari erakusteko

oroimenean zabaltzen zaizkizu arrakalak
munduko ostatuetako
ur zikinarekin bete orduko

mundua zeharkatuko duzu
ostatuz ostatu
gelatik atera gabe
herrialde ezezagun batera iritsi eta
taxi edo autobus edo metroko leihotik
begiratu gabe egingo duzu
oherako bidea

gorazde

berlin
lhasa
montreal
oussouye
eta quito

itzuliko zara minbiziaren berri
ez duten kale gaixotuetara
ikusezina izango zara
zure iragana oroitzen dutenen leihoetan
pilula lasaigarri kadukatuak bilduko dituzu
                        patriketan
eta denborari irentsaraziko dizkiozu
egunerokoa idatzi ostean
pertsona maitatuen berri eman ezinik

mundua zeharkatuko duzu
ostatuz ostatu
gelatik atera gabe
argazki bat egingo diozu leihotik
une horretako bizitza zatiari

atzera kontua ezarriko diezu zure hezurrei
une jakin batean eztanda egin dezaten

# HILDAKO LAGUNEI GUTUNA - 1

hilobiratu zituzten zuekin batera
oroitzapenak
ferekak
aldarriak
hilobiratu zituzten zuekin batera
sekretuak
dardarak
berri onak

# EZBAIRIK GABE

denbora
estaturik zarpailena
heriotza zigorrak
ezbairik gabe betearazten dituena
zimur eta arrakalen legearekin
ilusioak deuseztatzen dituena

denbora
konstituziorik gabeko zalantza
lurrik gabeko lubakia
itzulerari muzin egiten dion
kresal amildua

# HILDAKO LAGUNEI GUTUNA - 2

elkartuko garela diote
        eta egia izango da agian
une honetan ez baitago
oroimina baino urruntasun handiagorik

elkartuko garela diote
        beste mundu batean agian
justuagoa izan dadin
borrokatu beharko ez den batean

elkartuko garela diote
        eta arrazoia izango dute
elkartuko baikara agian
ahanzturan

# ORRI ZURIAN

Orri zurian
heriotza marrazteko
eskatu zenidan.
Eta nik
hitz bat baino
ezin izan nuen
bertan
urkatu.

# HILDAKO LAGUNEI GUTUNA - 3

Iragana memorian existitzen da, HILIK!

TADEUSZ KANTOR

begira iezadazue
ahanzturatik
oroiminetik

nire gorputzean denak
jarraitzen du berdin

ezustean betetzen diren
mendekuak dira nire ferekak

horma hautsien geografia
haragizko gezurra
iluntasuna
izerditan dago bertan
eta nire ahoa ez da
etorkizunarekin mintzo

# GAU BAT

*Cines Principeko lankide ohiei*

aho hutsak
laztandu

iragan hordiak kalearen
gau gibelean

zirrara etsiak
itxaropenaren zain

izan ginena ahazten
hasiak gara
gu amiltzen

urteak
zenbatzen ditugu
ezpain zati
galduen erbestean

gau bat

irauten duen
erbestea

ahotsak
odolustu ditugu

une berriak
giltzapean
gorderik

hilotz

(zoriontsu)

# GERTU

batzuetan
denboraren antza du
edertasunak
besteetan
garbitu gabe pilatutako
arroparena

iragan egunen
izerdia
gehitzen zaio
segundoen
hats hordiari

batzuetan
edertasunaren antza du
denborak
besteetan
gertu dagoen
urrunekoarena

# HIRIA

amets garaituen biltegian bizi garelarik
sagardoa jarriko dugu freskatzen
sexu hautsiaren aparrarekin
egarria apurtzeko

amets garaituen biltegian bizi garelarik
egunen zama aitortuko dugu
denboraren jabegoari
uko egin ahala

topa egin dezagun
hazi gozo bete hots
denboraldi baterako
harreman berriengatik

# OIHARTZUNA

Zimur batek
jada ahantzia denaren
oihartzuna dakar
orainaren geltoki abandonatura

orbain batek
behakoak erdibitzen ditu
bero gaur
hotz gero

# HAMAHIRU URTE BETE BAINO LEHEN

Hamahiru urte bete baino lehen
begiak ixten nituen, indar handiz,
egurraren soinua entzutean
atetik sartuko zena ez ikusteko,
existituko ez balitz bezala egiteko.
Baina atea zabaltzen entzun orduko,
izuaren plazerak erakarririk,
beti begiratzen nuen harantz.
Eta atetik sartzen zena
beti nintzen ni.

# LORE INPERFEKTUAK

# BIDAIA

haurtzaroa da
bisita dezakedan
lurralde urrunena
oin hotsen bazterrean hazten den
aukera norabakoa

haurtzaroa da
oroi dezakedan
etorkizun samurrena
erraietatik naizenak ments du
orduko itxaropena

# HELDU OSTEAN

bizitza mingarria delako da denbora gorria

ezusteak errepide baten luzera duelako
diote matxinsaltoek grebarako garaia dela

jolas aroak adina zamatzen du
jausi da zuri-beltzezko telebista mendi zokora
egunsentia koloreetan korapilatuz

oroitzapen isilduen hatsa tiritekin sendatzean
zabaltzen dira bekainak
parentesi maiteminduen ohean

urteak pasa ahala
errazago lerratzen dira malkoak zimurretatik
horregatik etsi dio euriak
aurpegiak maitasunez estaltzeari

etsipena ezabatzea bezalako lehia xumeak ahaztuak dira
hogeita hamabost orduko lan astea duten zaurietan

sudurretik jaiotzen dira lur sagarrak
eta goseak eta aterkiak

erotu zaigu adina
azpititulua eskatu dute argazkiek
alaitasuna digitala eta tristezia demokratikoa dela
dio ezer ez jakiteaz asko dakien batek

heldu ostean haur izan nahi nuke
baina ez atzoko hura ez bazterrekoa

ipuinen esanahia misterio bat zeneko ahur ura

# EKAR LITEKE

gaua ekar liteke etxera
pertsiana jaitsi
besterik ez dago

gaua ekar liteke gelara
argia amatatu
besterik ez dago

gaua ekar liteke gogora
begiak bildu
besterik ez dago

gaua ekar liteke ametsera
haurtzaroa oroitu
besterik ez dago

# PARKEAN

Iraganak bakartuta
kafe kikara baten ertzean
burmuin bete lasto
itzalekin solasean

denbora neguko gau bat da
haurrentzako parke hitsean

urruntasunetik mintzo da
ihesa izterretan
gatibu duela
jakin gabean

adina neguko gaitz bat da
haurrentzako parke hutsean

hegien sarea oihartzun
egun bakoitza
orezta bat da
nahi eta ezinen geruza idorrean

oroimena neguko gar bat da
haurrentzako parke hotzean

gorputzari estekaturik
hazi diren leherketak
oihuak eskukadaka
irribarrean

arnasa neguko gabezia da
haurrentzako parke bakoitzean

# ELKARRIZKETA ASIER SARASOLAREN POEMA BATEKIN

Itzuliko ez diren etorkizunak.
Iragana gogoratuz galdu diren gaubeilak.
Itzuliko ez diren etorkizunak.
Zahartzen ote dira txikiak gineneko ametsak?
Itzuliko ez diren etorkizunak.

Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?

*Eten beharra dago berunaren norabidea.*
*Eten beharra dago krudelaren mintzoa.*

Eten beharra dago.
Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?

*Barre egiten zenuen besorik ez zuelako*
*zabutik erori zen neskatilaz.*
*Edo bizarra kentzeko labana hortzetan*
*sehaska odolez bete zuen umeaz.*

*Barre egiten zenuen ahotsa galdu arte.*

*Barre egiten zenuen ahotsa galdu arte.*
*Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?*

Eten beharra dago.
Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?

*Eten beharra dago marra honen norabidea.*
*Eten beharra dago erogaitz honen haizea.*

Eten beharra dago.
Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?

*Ez edozer konpon dezakeelakoan,*
*baizik eta hilotzek*
*ez dezaten semeen gaineko susmorik*
*zizareen eztarritik edan.*

*Esan zezala lagunen alabak*
*begira, erle bat!*

Esan zezala.
Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?

Eten beharra dago.

*Ailetor gozoa elurretan eztia,*
*nire begietan egina balute erlauntza,*
*lerro bakanean abaraska!*

Eten beharra dago.
Zahartzen dira ametsak ala zahartzen gara gu?

*Eten beharra dago ahopuntuaren galbidea.*
*Jarraipenik gabeko etenik ezagutu ez eta,*
*doako samina, hiletek aspertuta*
*garesti ordaintzea saiheste aldera.*

Esan zezala lagunen alabak. *Eten beharra dago.*
Esan zezala lagunen alabak. *Begira, erle bat!*

# KALTE KOLATERALAK

Etxe hartan retrobisoreen antza zuten labanek,
atzetik gerturatzen zen hori
ez zetorren inoiz bizkarra emanda,
aurpegia eman behar zitzaion beldurrari
begietara so egiteko adina adore izanez gero.

Umea baino unea zen bera,
istant batean ezkutatu eta
hantxe bizi zelako,
haragizkoak ez ziren munduetan.

Inora ez zihoan bidaia
maleta baten barruan gorderik zegoen
amaren ohe azpian,
etxeko itzalak zenbatu gabe
irakurri nahi lituzkeen liburuez betea.
Denbora astiroago doa
argiak azalari ihes egiten dionean.

Une bat zen bera:
askatasun tanta bat bizitzarik itsasoenean,

izarrak zenbatzeko estrategia,
itxarongelarik gabeko esperantza,
gizonkeriak kateaturik haziko den gizona.

Etxe hartan eguneroko ogia ideologia bat zen,
besteekin hitz egitea bizitzeko modu bat,
elkartasuna kaleko jendearen oporretatik at
zabaltzen zen konstelazio arrotza.

Etxe hartan maitasunaren zorroztasunarekin
ebakitzen zitzaion lepoa gorrotoari,
odolaren abizenak lekuz aldatzeraino.

Une bat zen bera:
bisaia makillajez apaindu ordez
egurra sutara kondenatu gura zuen txinparta.

# IHES EGINGO DUZU

Esango dizut noiz
hasten den ubelduren katea:
haur garaia zaizu erbeste gozoena,
lau hormen arteko airearen berri izan arren
zabalagoa delako irudimenaren neurria.

Zortzi urterekin zure mundutik
ihes egin beharrean zaude,
zure jostailu preziatuenak plastikozko
poltsa batean sartzeko esan dizute
eta gaua leihoaz bestaldean hazten dela
ulertu duzu bat-batean.
Une horretan hasiko zara
ahaztu nahi duzun hura guztia oroitzen.

Esku txikiak ikus ditzakezu oraindik
zure esku handi zartatuen barruan,
ez dakizu ziur zu zeu hazi zaren edo
joanaren pisuak txikitu ote dituen helduak.
Bada une bat zeinean
ihes egingo duzun loturetatik,

ihes egingo duzun denboran atzera,
ihes egingo duzun utzi zenuen lekutik
utzi zenuen lekura.

# LORE

hegoak suizidatu zaizkizu
        lore
udaberria lotu zaizu
ahurretan

sustrai ttipiak dituzu
        lore
basamortuaren neurria du
zure heriotzak

amets baten ertzean topatu zaitut
        lore
pospolo baten grinarekin
bete duzu iragana

jaioko zara itsasoan
        lore
egun bakoitzaren hatsa biderkatuz
ez-bai zara

# BALANTZAKA

Beldurrez
so egingo dio
ortzadarrari
ordutegien babesean
Besoekin
estutuko du
gorputzen dardara
loaren arnasan abiatzean
Kantu
isil bat bezain
arrotz sentituko du ahotsa
izen baten bazterrean marrazterakoan

Igeri egingo du
malko baten oroimenean
azalaren pizgarriak bereiziz
lanean erabilitako arropa izerdituetatik
Tabakoaren
usaina uxatzeko
zabalduko ditu leihoak
Gauari

galdetuko dio
zertan den gaur mundua

Erlojuak
zorabiatzen du
Irudimenak
kamamilazko izua dakar
Kaleari
erreparatu dio
Iluntzean
ez dago auzoan aparkatzerik

Udazken
hasi berriak
lehenago ostentzen ditu behakoak
Eta berak
afalostean
ilea laztantzen dio
ihintzaren nekeari
eguna luzatzeko

# ESKUEKIN OROITU

Zimurtuko dira
gaurko tatuajeak
biharko agurearen
bizkarrean

horregatik nahi dut
eskuekin oroitu
zure azalak
orain esaten duena

# GOLDE LURRA

leer la Biblia del revés
envidiar a un panadero
fumar
dormir
eructar en una gala benéfica
hacer teatro
no hacer teatro
mirar al escote de las embarazadas
llorar con una película horrible
trabajar
oír las sirenas y cerrar los ojos

*Breve historia de los conquistadores*
OSCAR MANSO

Begira iezadazue.
Zirriborro baten antza dut.
Marra zaharkituarena.
Ohartzeke asetzen den egarriarena.

Zer naiz?
Kolorerik gabeko marrazki bat
haurtzaindegiko horma zikinean.

Mundua ulertzearren pinturak jaten dituen
lau urteko umea, bost urtekoa, sei urtekoa.

Usain nazazue.
Txikia nintzelarik
hamahiru urte betetzean
jendea erotu egiten zela uste nuen.
*Hamar. Bederatzi. Zortzi. Zazpi. Sei.*
Jolas garaia atzera kontu bat zen.
*Bost. Lau. Hiru. Bi. Har.*

*Noraino luzatzen utz diezaioket atzazal bati?*

Uki nazazue.
Zartaturik nago,
orbainak ditut zakil muturrean,
zauri irekiak hortzetan,
eta guztiarekin ere dutxan
neure burua kantatzera derrigortzen dut
pozik eta gaizki gehienetan.
Asperdura da errendiziorik zailena.

*Zenbat aldiz egin du txortan nire belarriak?*

Tristezia homologatuaren kontra
borrokatzen naizela pentsatu nahi dut,
zentzurik gabeko galderak eginez,
bestela biziko ez nituzkeen biografiak asmatuz
paperean eta oholtza gainean.

*Zer litzateke historia alfabetorik gabe?*

Haurren isileko estrategia da sormena,
sano jarraitzeko hamahiru urteak bete ostean.
Gezurra da nire gorputza eta samina
presondegitik ihes egin duen
gaizkile eder bat.

*Nola da posible munduan*
*hainbeste aurpegi ezberdin egotea?*

Txikitan karrikan jolasten ginelarik
polizia izan nahi genuen,
telebistan haiek zirelako onak.
Orain onak dira amesgaiztoa,
hotzikararik demokratikoena.

*Hiru. Bat. Hamaika. Ehun... Hamahiru.*

*Existitzen al dira demokrazia demokratikoak?*

Baina haurrek ezin dute manifesturik idatzi,
ez protestarik antolatu,
ez isolamendua barkamenarekin mendekatu.
Babesgabeak dira,
apatikoek behin eta berriz bortxatutako ametsen
jabeak,
adin txikikoak esaten zaien arren
adin txikitukoak askotan.
Alkoholaren, tabakoaren eta gezurraren
hatsa dute helduon muxuek.

*Zergatik aldatzen da zerua?*

Erotu naiz.
Aukeratu dezadan behintzat
zer nolako eroa izan nahi dudan.

*Zortzi. Berrehun. Mila. Milioia. Infinitu!*
Eta hamahiru.

*Nork erabakitzen du zer den gehiengo bat?*

Dasta nazazue.
        Lur honetan jolasten naiz,
        jada ez dut polizia izan nahi.
        Lur honetan eraikitzen ditut
        nire panpinentzako etxeak, txabolak,
        futbol zelaiak, abenturak.

Mapetan apopilo,
uneetan maizter,
bizitzak irudikatzeko
askatasuna imajinatu behar da lehenik.

Ozen galdetzen diet
(publikoki, hau da, ilegalizatua izateko
                        arriskuarekin)
mandatari ofizial eta ez ofizialei:

*Nora doaz dutxan galdutako ileak?*

Mugi nazazue.
        Zer naiz?
        Argazki baten antza dut.

*Haurren galderak erantzutea*
*literatura egitea ote da?*

Edan zarata zakarraren kamioiak esnatzean,
arnastu neguko geruzen lerdea ortzadarra biluztean,
zapaldu adiskide minen ilargi burusoilak.

JARRI PERTSONA IZENA LORE BATI.

Aldarrikatu matematika ezinezkoak
mundua ulertzeari uzteko,
jolastu justizia posiblea den minutuetan
denborak haurrak ustel ez ditzan.

ZABALDU ZULOAK URAREN AZPIAN.

Txikia naiz egunean behin
edo bitan, eta ez da posible;
eta hala ere atzoko erantzunek
biharko galderak lotzen dituzte.

PIZTU BI IRRATI BATERA ETA ENTZUN.

Belarra hazi zait

bularrean, sorbaldetan, hankartean.
Titiburuak sukartzen zaizkidanean
eztanda egiten du jostailu batek.

GAIZKI ULERTU EDER BAT DA MAITASUNA.

Udazkeneko zeruen distira basatia nahi dut
inoiz pintatuko ez ditudan koadroak gogoratzeko.

*Non arraio birziklatzen dira ideologiak?*
*(papera-plastikoa-beira, kontainer erreak)*

Biluz nazazue.
        Ezten baten antza dut.
        Haurra izan nahi dut,
        eta banaiz eta ez naiz.

*Zergatik ez ditugu kalean usoen kumeak ikusten?*

Harrapa nazazue.

*Eta lau eta bost eta hamahiru eta abar.*

Arnas nazazue basoen gerizpean.

Zuhaitzek memoria eusten dute,
baina inor ez da gai
haien oroitzapenak zenbatzeko.

*Zenbat hosto hazten zaizkio pago bati?*

Orbela ez zait besoetan sartzen krosk,
ibilian zapaltzen dut iragana krask.

Laztan nazazue.
Ile baten antza dut.
Zer naiz?

Begira iezadazue.

*Nola ikusten da mundua betaurrekorik gabe?*

Belarra hazi zait bularrean.
Plastilinazko lorategi batean bizi naiz.
Simaur usaina dago berton
baina gaurko zerua ikusten da.

*Haurren galderei erantzutea*
*iraultza egiteko modu bat ote da?*

nire eskuen memorian zaudete: Ama, Amaia, Idoia.
joan zinetenak: Jonan, Toni, Karmen, Paco, Juanita, Jose.
joan ez zinetenak: Mikelazulo kultur elkarteko adixkideak, Labeakoak, metrokoadroka-koak.
lerro artean: Mikel, Iker, Ander, Oscar, Axi.
besarkada bat JosAntoni, arratsalde hartako animoengatik.

esku batean esku guztiak sartzen direlako, eskerrik asko.